



«SMART Gipuzkoa: Lurralde Adimentsua» - 2015

EMAKIDA-PROPOSAMEN TXOSTENA INFORME PROPUESTA CONCESIÓN

1.- Txosten honen xedea eta garrantzia	2	1.- Objetivo y alcance del informe.....	2
2.- Programaren ezaugarriak	3-6	2.- Características del programa	3-6
2.1- Finantzaketa	3	2.1- Financiación	3
2.2- Bete behar diren epeak.....	3	2.2- Plazos a cumplir	3
2.3- Nork eskatu dezake diru laguntza hau	3	2.3- Qué entidades pueden solicitar la ayuda.....	3
2.4- Smart proiektuak, zer dira.....	3	2.4- Proyectos smart, ¿qué son?.....	3
2.5- Diruz lagunduko diren jarduerak.....	4	2.5- Qué proyectos se subvencionan	4
2.6- Zer den lagungarriari buruzko kontsiderazioak.....	4	2.6- Qué se considera subvencionable	4
2.7- Balorazio irizpideak	5	2.7- Criterios de valoración	5
2.8- Diru laguntzen gehiengo zenbatekoak.....	6	2.8- Cuantía de la subvención y máximos.....	6
2.9- Laguntzak metatzea eta mugak	6	2.9- Acumulación y límite de las ayudas	6
3.- Ateratako puntuazio-ordena	7	3.- Orden de puntuación obtenida	7
4.- Diruz lagunduko diren proiektuak (deskribapena) ..	8-9-10	4.- Proyectos a apoyar (breve descripción)	8-9-10
5.- Proposamena eta ebazpena	11-13	5.- Propuesta y Resolución	11-13
Onartzea eta ematea	11	Aprobar y conceder	11
Ezetztea	12	Desestimar	12
Laburpena	13	Resumen	13



1.- TXOSTEN HONEN GARRANTZIA

Txosten hau Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko Informazio Gizarterako Sistemen Zuzendaritza Nagusiko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak Sustatzeko Zerbitzuko teknikariek egin dute, «*SMART Gipuzkoa: Lurralde Adimentsua*» programaren 2015eko laguntza deialdiaren ebazpen proposamenaren oinarri izan dadin.

Txostenean honako alderdi hauek deskribatzen dira:

- ✓ Programaren ezaugarri orokorrak: onuradunak, diru laguntza jaso dezaketen inbertsioak, puntuazio irizpideak, eta aplikatu daitezkeen laguntza ehunekoak.
- ✓ Aurkeztutako eskaeren zerrenda, laguntza programa honetako onuradun izateko lortutako puntuazioaren hurrenkeran.
- ✓ Ebazpen proposamena: diruz lagunduko diren eskaeren zerrenda eta bakoitzari dagokion zenbatekoa; diru laguntza ukatu zaien eskaeren zerrenda, eta horretarako egon diren arrazoiak.

Ondoren, eranskin hauek datoz:

- A** Baldintzak betetzea. Eskatutako dokumentazioaren azterketa, eta onuradun izateko bete behar diren baldintzak betetzen diren edo ez egiaztatzea.
- B** Proiektuen zerrenda laburra. Aurkeztutako proiektuen deskribapen laburra, espediente zenbakiaren arabera ordenatuta.
- C** Informazio estatistikoa. Datuen erabilerari buruzkoa; enpresen eta proiektuen informazio kuantitatiboa zein kualitatiboa lortzen da.
- D** Erabilitako lan metodologia, onuradunek bete beharreko baldintzak aztertzerakoan, zein ezarritako balorazio irizpideen arabera eskaeren haztapena eta balorazioa egiterakoan.
- E** Proiektuari eta eskaera egiten duen enpresari buruzko informazioa eskuratzeko erabilitako galdetegi eredua.
- F** Proiektua balioesteko jarraibideak. Programaren 6. oinarrian ezarritako puntuazio irizpideak eta horiek aplikatzeko erabili den metodoa zehazten dira. Eredua horren arabera, aurkeztu den proiektu bakoitzeko txosten bat egin da.

1.- OBJETIVO Y ALCANCE DEL INFORME

El presente informe, elaborado por personal del Servicio de Promoción de Nuevas Tecnologías de la Información y Comunicación de la Dirección General de Sistemas para la Sociedad de la Información del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo tiene por objetivo sustentar la propuesta de resolución de la Convocatoria de las ayudas del programa «*SMART Gipuzkoa: Lurralde Adimentsua*» correspondiente al ejercicio 2015.

En el informe se describen:

- ✓ Características generales del programa: entidades beneficiarias, inversiones susceptibles de subvención, criterios de puntuación y porcentajes de ayuda aplicables.
- ✓ Relación de solicitudes presentadas ordenadas en función de la puntuación obtenida para poder ser beneficiarios del presente programa de ayudas
- ✓ Propuesta de Resolución: con la relación de solicitudes a subvencionar y sus importes, así como la relación de solicitudes a desestimar y sus causas.

Y se acompaña con los siguientes anexos:

- A** Cumplimiento de requisitos. Un análisis de la documentación requerida y la verificación del cumplimiento o no de los requisitos necesarios para ser entidades beneficiarias.
- B** Relación resumida de los proyectos. Una breve descripción de los proyectos presentados ordenados por número de expediente.
- C** Información estadística. De la explotación de los datos, se obtiene información tanto cuantitativa como cualitativa de las empresas y proyectos presentados.
- D** Metodología de trabajo utilizada tanto en la revisión de los requisitos a cumplir por las entidades beneficiarias, así como la ponderación y valoración de las solicitudes presentadas de conformidad con los criterios de valoración establecidos.
- E** Modelo de cuestionario utilizado para obtener información referente al proyecto y la empresa solicitante.
- F** Directrices de valoración del proyecto. Se definen los criterios de puntuación establecidos en la Base 6ª del programa y el método utilizado para su aplicación. En base a este modelo, se confecciona un informe individual de valoración para cada uno de los proyectos presentados.



2.- PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

GAOn argitaratu dira araudien oinarriak eta 2015eko deialdia «Smart Gipuzkoa: Lurralde Adimentsua» jarduera ekonomikoa sustatzeko programaren diru laguntzak emateko.

(GIPUZKOA A.O.-- 41zk.-- 2015eko martxoaren 3a).

2.1- Finantzaketa

Honako deialdian banatuko diren dirulaguntzen zenbatekoa, guztira, 250.000 eurokoa da; eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2015ko Aurrekontu Orokorreko ei egotziko zaio.

2.2- Bete behar diren epeak

- Eskerak aurkezteko: 2015eko martxoaren 4tik apirilaren 7ra arte (egun horiek barne)
- Proiektuen hasierako data: 2015ko urtarrilaren 1etik aurrera
- Justifikatzeko proiektua gauzatu dela eta kostuaren %100%: 2015ko urriaren 30a baino lehen
- Aurretiko ordainketaren eskaera: 2015ko urriaren 30a baino lehen
- Justifikatzeko proiektua gauzatu dela eta kostuaren %100%: 2016ko ekainaren 30era arte

2.3- Nork eskatu dezake diru laguntza hau

- a) Enpresa gipuzkoarrak. Gipuzkoan izango dute sozietate eta zerga helbidea.
- b) Irabazi asmorik gabeko erakundeak. Helbide soziala eta fiskala Euskadiko Autonomia Erkidegoan izan beharko dute eta kreditatu beharko dute ezen gutxienez badutela jarduera ekonomikoko zentro bat Gipuzkoan, non proiektua garatuko bait da
- c) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko I+G zentroak, Smart teknologien esparruan aritzen badira. I+G zentroen kasuan, nahikoa izango da egiaztatzea proiektua garatuko duen unitatea Gipuzkoan kokatuta dagoela.

2.4- Smart proiektuak, zer dira?

Smart teknologiatzat jotzen dira, IKTen erabilera intentsiboaz baliatuz, lurralde esparru jakin batzuk kudeatzeko soluzio eraginkorrak planteatzen dituztenak: Hiri barruko eta hiriarteko mugikortasuna, eraginkortasun energetikoa eta ingurumena, azpiegituren eta eraikinen kudeaketa eraginkorra, gobernu eta hiritartasuna, segurtasun publikoa, osasuna, hezkuntza, giza kapitala eta kultura, e-merkataritza,....

2.- CARACTERÍSTICAS DEL PROGRAMA

Publicadas en el BOG las bases reguladoras y convocatoria 2015 para la concesión de las ayudas del programa de estímulo a la actividad económica «Smart Gipuzkoa: Lurralde Adimentsua».

(B.O. GIPUZKOA—nº41-- 3 de marzo de 2015).

2.1- Financiación

La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de 250.000 € con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.2- Plazos a cumplir

- Presentación de solicitudes: del 4 de marzo al 7 de abril de 2015 (ambos inclusive)
- Iniciación de los proyectos: desde el 1 de enero de 2015
- Justificación de la realización del proyecto y 100% del coste: antes del 30 de octubre de 2015
- Solicitud abono anticipado (con aval bastante): antes del 30 de octubre de 2015
- Justificación de la realización del proyecto y 100% del coste: hasta el 30 de junio de 2016

2.3- Qué entidades pueden solicitar la ayuda

- a) Las empresas gipuzcoanas con domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- b) Entidades sin ánimo de lucro con domicilio social y fiscal dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco y deberán acreditar la existencia de al menos un centro de actividad económica en Gipuzkoa desde el que se desarrollará el proyecto.
- c) Los centros de I+D, pertenecientes a la Red Vasca de Ciencia Tecnología e Innovación que desarrollen actividades en el ámbito de las tecnologías Smart. En este caso, será suficiente con que acrediten que la Unidad desde la que se desarrollará el proyecto esté ubicada en Gipuzkoa).

2.4- Proyectos smart ¿qué son?

Se entienden por tecnologías Smart aquellas que, haciendo un uso intensivo de la TIC, plantean soluciones eficientes para la gestión de diversos ámbitos territoriales, tales como: movilidad urbana e interurbana, eficiencia energética y medioambiente, gestión eficiente de infraestructuras y edificios, Gobierno y ciudadanía, Seguridad Pública, Salud, Educación, capital humano y cultura, e-Comercio,....



Proiektuak Gipuzkoan landu behar dira, eta eginkizun hauek izango dituzte: pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzea; enpresen lehiakortasun baldintzak hobetzea; administrazioaren efizientzia hobetzea; eta, modu eraginkor batean, ingurumen iraunkortasunaren alde egitea

2.5- Diruz lagunduko diren jarduerak

Jarduerak I+B+G proiektuak izango dira, xede nagusia soluzio informatiko berritzaileak garatzea edo lehendik daudenak plataforma teknologiko berrietara edo merkatu berrietara egokitzea dutenak. Proiektuek merkatura bideratuta egon behar dute eta enpresaren lehiakortasun egoeran aldaketa positiboak eragiteko modukoak izan behar dute.

- Proiektuek 2015ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiak behar dute izan.
- Aplikazio informatikoak, Web garapenak eta antzekoak garatuz gero, euskaraz garatu beharko dira gutxienez.
- Hartu beharreko zabalkunde neurriei dagokienez, lagundutako jarduerari buruzko informazio, publizitate eta propaganda orotan, euskararen erabilera bermatuko da. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza adierazi beharko da.

Ez dira diruz lagungarritzat hartuko ekipamendu informatikoetan egindako inbertsioak (zerbitzariak eta ekipa informatikoak)

2.6- Zer den lagungarriari buruzko kontsiderazio batzuk

- Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak proiektuen kostua aztertuko du eskatzaileak emandako informazioa ikusita, betiere kontuan izanda konplexutasun teknikoa eta aurreikusten den inpaktua; Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak kostuak normala baino altuagoak direla uste bada, diruz lagungarria den zenbatekoa murriztu dezake.
- Proiektuan lanean dabiltzan langileen barne gastuak direla eta, benetako kostu zuzena bakarrik hartuko da kontuan, gastu orokorrak, berriz, ez. Orduko kostuak oso altuak badira, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Dptuak murriztu egin dezake orduko tasa programako batez bestekoa oinarritzat hartuta.
- Ordu dedikazioa handiegia izan bada, azpikontratazio gastuak behar beste zehaztuta ez badaude edo proiektuaren garapen teknologikoarekin zeharkako zerikusia badute, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak murriztu egin dezake diruz lagun daitekeen zenbatekoa.
- Ez da hautatzeko moduko gastua izango: fakturako BEZa (Balio Erantsiaren gaineko Zerga)..

Proyectos desarrollados en Gipuzkoa que pudieran impulsar un reforzamiento de la calidad de vida de las personas, una mejora de las condiciones de competitividad de las empresas, un incremento de la eficiencia en la administración y contribuyan de manera eficaz a la sostenibilidad medioambiental.

2.5- Qué tipo de proyectos se subvencionan

Proyectos de I+D+I que tengan por objeto el desarrollo de soluciones informáticas innovadoras o la adaptación de las ya existentes a nuevas plataformas tecnológicas o nuevos mercados. Los proyectos deben tener una clara orientación hacia el mercado y ser susceptibles de inducir cambios positivos en la situación competitiva de la empresa.

- Los proyectos deberán haberse iniciado a partir de la fecha de 1 de enero de 2015.
- En caso de desarrollo de aplicaciones informáticas, Web y similares, deberán realizarse, al menos, en euskera.
- En cuanto a las medidas de difusión a adoptar, toda la información, publicidad y propaganda relativas a la actividad subvencionada deberán realizarse de modo que el uso del euskera quede garantizado y, deberán hacerse constar la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Quedan excluidos de los gastos subvencionables las inversiones en equipamientos informáticos (servidores y equipos informáticos).

2.6- Qué se considera subvencionable. Algunas consideraciones

- El Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo analizará el coste de los proyectos, a partir de la información suministrada por la solicitante, teniendo en cuenta su complejidad técnica e impacto previsible. Si el Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo considera anormalmente elevados los costes presentados podrá reducir el importe subvencionable del mismo.
- En el caso de gastos internos de personal con dedicación al proyecto, sólo se tomará en consideración el coste directo real, no los gastos generales. En el caso de costes horarios elevados, el Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo podrá reducir dicha tasa horaria en función de la media del programa.
- En el caso de dedicaciones horarias elevadas, gastos no suficientemente detallados o de vinculación indirecta al desarrollo tecnológico del proyecto, el Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo podrá reducir el importe subvencionable de los mismos.
- No se considera gasto elegible: el IVA (Impuesto sobre el Valor Añadido) repercutido en factura.



2.7- Diru laguntzaren emakida, balorazio irizpideak

Prozedura elkarrekiko norgehiagoka. Eskaera guztiak aztertuko dira eta hoiaren artean hautatuko dira onuradunak ondorengo balorazio irizpideei jarraituz:

1- Proiektuari Smart izaera ematen dioten ezaugarriak: 20 puntu gehienez. Kontuan hartuko da proiektuak zer mailatan laguntzen duen ingurumen iraunkortasuna hobetzen; proiektua gauzatu gero, efizientzia ekonomikoa zenbaterainokoa izan daitekeen; eta proiektuak zer gaitasun duen gizarte adimentsua, aktiboa eta parte-hartzailea sustatzeko, horrelako gizarte bat izanik herritarrei ematen dizkiena haiek eskatutako zerbitzuez gozatzeko baliabideak, edota, herritarrei balioa eskainiz, haiekin batera eragiten duena.

2- Proiektuaren berrikuntza teknologikoko maila: 20 puntu gehienez. Proiektuaren berrikuntza maila zehazteko, kontuan hartuko diren alderdiak: produktuaren berrikuntza maila enpresari eta merkatuari begira, lehendik dauden produktuekin duen desberdintasuna, xedetzat hartzen diren merkatuetan egon daitezkeen lehiakideak, eta produktuak lortu beharreko garapen maila.

3- Proiektuaren bultzada-gaitasuna eta eragin sozioekonomikoa: 20 puntu gehienez. Atal hau zehazteko, kontuan hartuko dira, alde batetik, balio erantsiari eta enplegua sortzeari dagokienez enpresak dituen itxaropenak eta, bestaldekik, merkatu berrietara irekitzeko duen gaitasuna.

4- Eskaera egiten duen erakundearen profila: 10 puntu gehienez. Atal hori baloratu ahal izateko honako alderdi haiek hartuko dira kontuan: enpresaren jarduera, entitatearen tamaina, bere berrikuntza profila (I+G alorreko inbertsioa) eta enpresak merkatuan izan duen hedapen maila.

5- Egin beharreko ahalegin finantzarioa: 10 puntu gehienez. Horretarako kontuan hartuko da proiektuaren zenbatekoa, kopuru absolutuan eta erlatiboan, eta baita proiektuaren zailtasunarekin eta garrantziarekin duen erlazioa ere.

6- Genero ikuspegia: 20 puntu gehienez. Atal hau baloratzeko, kontuan hartuko dira emakumeek proiektuan eta entitate onuradunetan duten presentzia eta parte-hartzea, eta baita ere entitate eskatzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzerantz bideratutako jarduketan garapenean izan duen ibilbidea (hala nola, planak, ziurtapenak eta lanak, edota lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriak).

7- Soluzio teknologiko libreak: 20 puntu gehienez. Kontuan hartuko da teknologia irekiak erabiltzea, eta baloratuko da garatuko den softwarea erabat edo zati batean askatzeko aukeratutako software libreako lizentzia mota.

2.7- Concesión de la ayuda, criterios de valoración

Procedimiento de concesión de concurrencia competitiva. Se analizan todas las solicitudes presentadas seleccionando las beneficiarias s/los siguientes criterios:

1- Elementos que caracterizan al proyecto como Smart: hasta 20 puntos. El grado de contribución del proyecto a mejorar la sostenibilidad medioambiental, el grado de eficiencia económica esperable de la implantación del proyecto y la capacidad del mismo para impulsar una sociedad inteligente, activa y participativa, entendida como aquella que facilita recursos a la ciudadanía para que pueda acceder a servicios que demanda y/o pueda interactuar con ella aportándole valor.

2- Grado de innovación tecnológica del proyecto: hasta 20 puntos. Se considerarán la novedad del producto para la empresa y para el mercado, la diferenciación del mismo respecto a productos preexistentes, la existencia de posibles competidores en los mercados objetivo, grado de desarrollo del producto a alcanzar y el software avanzado que incluya y pueda suponer un salto científico o tecnológico.

3- Capacidad tractora del proyecto y su impacto socioeconómico: hasta 20 puntos. Para determinar este apartado se tomará en consideración las expectativas empresariales en términos de generación de valor añadido y creación de empleo, así como su potencialidad para abrirse a nuevos mercados.

4- Perfil de la entidad solicitante: hasta 10 puntos. Para lo que se tomará en consideración la actividad de la empresa, el tamaño de la entidad, su perfil de innovación (en términos de inversión en I+D) y el nivel de apertura comercial de la empresa.

5- Esfuerzo financiero a realizar: hasta 10 puntos. Para lo que se tomará en consideración el importe del proyecto en términos relativos y absolutos y su relación con la complejidad y alcance del proyecto.

6- Perspectiva de género: hasta 20 puntos. Para la valoración de este apartado se tomarán en consideración la presencia de la mujer y su participación en el proyecto y la empresa, así como la trayectoria de la entidad solicitante en el desarrollo de actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres (tales como trabajos, certificados y planes, así como medidas de conciliación de la vida familiar, laboral y personal).

7- Soluciones tecnológicas libres: hasta 20 puntos. Se tomará en consideración la utilización de tecnologías abiertas y se valorará en función del tipo de licencia de Software Libre elegido para la liberación total o parcial del software a desarrollar.



8- Memorien kalitatea: 10 puntu gehienez. Proiektuaren, helburuen, aukeren eta arriskuen, funtzionaltasunaren zehaztapen mailaren, erabilitako teknologien, kronogramen, proiektuaren faseen, merkaturatzearen eta abarren deskripzioan dagoen argitasunaren eta zehaztasunaren arabera.

2.8- Diru laguntzen gehiengo zenbatekoak

- Proiektu bakar bat lagunduko da erakundeko/urteko.
- Aplikagarri den portzentajea gehienez ere kostuen %35 izango da. Enpresa bakoitzari 40.000 euroko laguntza emango zaio gehienez ere urteko.
- Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu zehaztua, gerora izan ditzakeen aldaketekin, eta 3.4 oinarriak aipatzen duen azterketa mugarriak izango dira diru laguntzaren zenbatekoa finkatzeko. Kalkulatzeko, jardueraren behin betiko kostu diruz lagungarriaren portzentaje bat hartuko da, eta diru laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du gainditu hasieran emandakoa

2.9- Laguntzak metatzea eta mugak

- Diru laguntza hauek bateraezinak dira Gipuzkoako Foru Aldundiak xede bererako emandako beste diru laguntza batzuekin. Baina bateragarriak izango dira xede berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk, emandako diru laguntza, sarrera edo baliabideekin, baldin eta ez badute jardueraren kostua gainditzen eta, betiere, beste diru laguntza horien araudiak horren inguruan ezar dezakeena eragotzi gabe.
- Programa hau aplikatuz emango diren laguntzak garrantzi txikikoak edo *de minimis laguntzak* izango dira. Erakunde onuradun batek jaso dezakeen minimis-eko laguntzaren guztizkoak ezingo du 200.000 eurotik gorakoa izan, indarrean dagoen ekitaldi fiskala eta aurreko biak aintzat hartuz.

8- Calidad de las memorias: hasta 10 puntos. Según la claridad y concreción en la descripción del proyecto, objetivos, oportunidades y riesgos, nivel de detalle de la funcionalidad, tecnologías empleadas, cronograma y fases del proyecto, comercialización.

2.8- Cuantía de la subvención y máximos

- Únicamente se apoyará un proyecto por entidad y año.
- Porcentaje máximo: el 35% de los costes. La subvención máxima por empresa y año: 40.000 euros.
- El presupuesto desglosado presentado por la entidad solicitante, o sus modificaciones posteriores, así como el análisis al que se hace referencia en la base 3.4 servirán de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste subvencionable final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el inicialmente concedido.

2.9- Acumulación y límite de las ayudas

- Las ayudas concedidas en aplicación de este Programa tienen la consideración de *ayudas de minimis*. La ayuda total de minimis que puede percibir una misma entidad beneficiaria no podrá ser superior a 200.000 euros contabilizados en el periodo comprendido entre el ejercicio económico actual y los dos anteriores.
- Las subvenciones objeto de las presentes bases serán incompatibles con otras obtenidas de la Diputación Foral de Gipuzkoa para la misma finalidad. Y compatibles con otras procedentes de cualesquiera otras administraciones o entes públicos o privados, siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada y sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.



3.- ATERATAKO PUNTUAZIO-ORDENA

Ondoren aurkeztutako balorazio-irizpideei jarraituz lortutako puntuazioaren arabera ordenatutako eskaeren zerrenda. Irizpide hauek "2.7. Diru laguntzaren emakida, balorazio irizpideak" atalean deskribatzen dira.

Grisean emateko eskaerak eta dirulaguntzaren zenbatekoak programako aurrekontua agortu arte.

3.- ORDEN DE Puntuación Obtenida

A continuación la relación de solicitudes presentadas ordenadas en función de la puntuación obtenida siguiendo los criterios de valoración. Se describen en el apartado "2.7. Concesión de la ayuda, criterios de valoración".

En gris las solicitudes a conceder y los importes de subvención hasta agotar el presupuesto del programa.

Espediente Kodea Código Expediente	Erakunde eskatzailea Entidad solicitante	PUNTU PUNTOS	LAGUNTZA SUBVENCIÓN	METATUTA ACUMULADO
2015-PCR3-000020-01	TUMAKER S.L.	84,30	36.307,95 €	36.307,95 €
2015-PCR3-000028-01	IAMETZA INTERAKTIBOA SL	80,32	21.708,31 €	58.016,26 €
2015-PCR3-000027-01	SUMINISTROS ELÉCTRICOS GABYL GIPUZKOA S. A.	78,04	34.502,02 €	92.518,28 €
2015-PCR3-000032-01	IBERMATICA S.A	76,30	36.777,01 €	129.295,29 €
2015-PCR3-000004-01	EUROHELP CONSULTING SL	75,30	40.000,00 €	169.295,29 €
2015-PCR3-000031-01	ENIGMEDIA SL	73,67	24.513,32 €	193.808,61 €
2015-PCR3-000006-01	FUNDACION TEKNIKER	73,60	31.501,06 €	225.309,67 €
2015-PCR3-000025-01	HISPAVISTA S.L.	72,90	40.000,00 €	265.309,67 €
2015-PCR3-000005-01	IGARLE . SL	71,92	33.945,65 €	299.255,32 €
2015-PCR3-000021-01	DINYCON SISTEMAS S.L	71,79	32.654,00 €	331.909,32 €
2015-PCR3-000034-01	ELHUYAR ZUBIZE	71,30	29.022,10 €	360.931,42 €
2015-PCR3-000029-01	EKILOR ENERGIAS RENOVABLES SL	70,80	40.000,00 €	400.931,42 €
2015-PCR3-000012-01	BUNT PLANET, S.L.	68,90	40.000,00 €	440.931,42 €
2015-PCR3-000014-01	FUNDACIÓN VICOMTECH	68,31	36.855,72 €	477.787,14 €
2015-PCR3-000016-01	TALAIOS AHALDUNTZEAN OINARRITUTAKO SAREAK	66,50	22.212,86 €	500.000,00 €
2015-PCR3-000024-01	DONOSTIALDEA SOCIEDAD DE SERVICIOS SL	66,47	40.000,00 €	
2015-PCR3-000033-01	ENERGY REVIVAL S. L.	64,50	40.000,00 €	
2015-PCR3-000013-01	RUS ZUBIA EDURNE	63,56	17.615,75 €	
2015-PCR3-000001-01	ISEA S COOP	61,50	40.000,00 €	
2015-PCR3-000018-01	IKERLAN S.COOP.	54,35	40.000,00 €	
2015-PCR3-000015-01	EKITERMIK S.COOP.P	53,50	21.605,02 €	
2015-PCR3-000030-01	BASERRITIK.COM BASERRITARREN ELKARTEA, E.Z.	51,75	7.000,00 €	
2015-PCR3-000023-01	LKS, S.COOP.	50,56	40.000,00 €	
2015-PCR3-000022-01	INDABA CONSULTORES	50,47	40.000,00 €	
2015-PCR3-000008-01	ZITU INFORMATIKA SL	50,45	15.400,00 €	
2015-PCR3-000002-01	MUGIKORTASUN KUDEAKETA ZERBITZUAK SL	49,50	12.374,03 €	
2015-PCR3-000017-01	NATURVEGAN ECOLOGICO SL	49,10	8.488,68 €	
2015-PCR3-000026-01	COMUNICACIÓN INTERACTIVA ADIMEDIA SL	45,46	40.000,00 €	
2015-PCR3-000011-01	ASOC COMERCIO HOST Y SERVICIOS IRUN	44,25	26.978,75 €	
2015-PCR3-000019-01	PROTIKER SL	43,25	40.000,00 €	
2015-PCR3-000007-01	CENTRO DE ESTUDIOS E INVESTIGACIONES TECNICAS	41,21	34.140,12 €	
2015-PCR3-000003-01	REALIZE S.COOP	Ezeztatu/ Denegar		
2015-PCR3-000009-01	ZITU INFORMATIKA SL	Ezeztatu/ Denegar		
2015-PCR3-000010-01	ZITU INFORMATIKA SL	Ezeztatu/ Denegar		



4.- LAGUNDUKO DIREN PROIEKTUAK

Ondoren, puntuaziorik altuena lortu duten eta diru laguntza eman nahi zaien proiektuen deskribapen laburra dator (guztira 14 proiektu), aurrekontuko diru zuzkidura agortu arte. Ordenatu dira ateratako puntuazioaren arabera (gehiagoko gutxiagokora).

B eranskinean, aurkeztu diren proiektu guztien zerrenda dator (34) xeheago aztertuta.

20 CLOUD PLATAFORMA BERRI BAT SORTZEA, 3D INPRIMAKETA EGITEKO LANKIDETZA INGURUNE BATEAN

Cloud plataforma hori irekia izango da, ondoren 3Dko edozein inpresoratan inprimatu daitezkeen gauzak sortzeko, kanpoko garatzaileentzat irekita egongo den API (Application Programming Interface) baten bidez.

28 UBIKMINING: Liburutegi aurreratuen kudeaketa adimentsurako plataforma teknologikoa

Egitasmo honek funtsean liburutegi areagotuaren eta aurreratuen kudeaketa adimentsua burutu ahal izateko datuen metaketa, tratamendua eta bisualizazioa aurreikusten du, hori guztia gune kultural efizienteago eta adimentsuago bat lortzeko helburuarekin, hiritarren beharrei egokituago egongo den espazio bat lortzeko erabakiak hartzen lagunduko duena eta prozesu horretan bertan hiritarrei zerbitzu anitzak eskainiko dizkiena. Orain Tabakalerako sorkuntza liburutegian aplikatuko da.

27 HiriKT

Hiriko altzariak modu inteligentean, jasangarrian eta eraginkorrean kudeatzeko plataforma, esate baterako, kaleko argiak, ureztatze sistema, sarbide publikoko kontrola, informazio panelak, megafonia, wifia, telebistako zirkuitu itxia, eta abar.

32 IL-1-Zaindu

Etxean bakarrik bizi diren adineko pertsonak zaintzeko produktua, erorikoei aurre egiteko, jokabide aldaketak hautemateko eta abar, modu ez intrusiboan eta smart teknologiak erabilita.

04 Ekonomia gardenerako terminal fiskala

Fiskalizazio unibertsaleko aplikazio bat, profesional guztiek erabiltzeko modukoa (medikuek, dentistek, fisioterapeutek, igeltseroek, margolariak, iturginek, ostalariak, merkatariek, banatzaileak eta abar). Egungo salmenta eta fakturazio sistemak aztertuko dira (salmenta puntuko terminala) eta fiskalizatzeko sistema bat jarriko da bertan.

4.- PROYECTOS A SUBVENCIONAR

A continuación, una muy breve descripción de los proyectos que mayor puntuación obtienen y que se proponen apoyar con subvención hasta agotar la dotación presupuestaria, 14 proyectos ordenados en función de la puntuación obtenida (de mayor a menor puntuación).

En el Anexo B, la relación de todos los proyectos con una descripción más extensa, un total de 34 proyectos.

20 CREACIÓN DE NUEVA PLATAFORMA CLOUD PARA ENTORNO DE IMPRESIÓN 3D COLABORATIVO

Una plataforma cloud abierta para la creación de objetos que posteriormente puedan ser impresos en cualquier impresora 3D, a través de una API (Application Programming Interface), abierta a desarrolladores externos.

28 UBIKMINING: Liburutegi aurreratuen kudeaketa adimentsurako plataforma teknologikoa

Egitasmo honek funtsean liburutegi areagotuaren eta aurreratuen kudeaketa adimentsua burutu ahal izateko datuen metaketa, tratamendua eta bisualizazioa aurreikusten du, hori guztia gune kultural efizienteago eta adimentsuago bat lortzeko helburuarekin, hiritarren beharrei egokituago egongo den espazio bat lortzeko erabakiak hartzen lagunduko duena eta prozesu horretan bertan hiritarrei zerbitzu anitzak eskainiko dizkiena. Orain Tabakalerako sorkuntza liburutegian aplikatuko da.

27 HiriKT

Plataforma de gestión inteligente, sostenible y eficiente energéticamente de diverso mobiliario urbano como puede ser el alumbrado público, sistema de riego, control de acceso público, paneles informativos, megafonía, wifi, circuito cerrado de televisión, etc.

32 IL-1-Zaindu

Un producto que permita la vigilancia en el hogar para la prevención de caídas, detección de cambios de conductas, etc. en personas mayores que vivan solas, y que lo haga de una manera no intrusiva, utilizando para ello tecnologías Smart.

04 TFET Terminal Fiscal para una Economía Transparente

Una solución de fiscalización universal, aplicable a todos los colectivos profesionales (médicos, dentistas, fisioterapeutas, albañiles, pintores, fontaneros, hosteleros, comercios, repartidores, etc.). Se analizarán sus actuales sistemas de venta y facturación (TPV: Terminal de Punto de Venta) y se integrará un sistema de fiscalización en los mismos.



31 HelpMe!

HelpMe! Proiektua geoposizionamendua daramaten egungo teknologia mugikorren eta alarma eta larrialdietako ohiko sistemen arteko konbinazioa da, herritarrek berehala laguntzeko tresna bat izan dezaten larrialdi edo arrisku egoera batean. Aplikazioak izu botoi batek zein alarma atzeratu batek bezala funtzionatzen du.

06 EMS Insight: Energi-eraginkortasuna eraikinetan, klimatizazio-sistemen abio/geldialdi kontsignen optimizazio bitartean eta funtzionamendu txarren identifikazioa

Teknologia honen helburu nagusia zera da: konfort baldintzak bermatuz, klimatizazio sistemen lana optimizatzea. Horretarako, honako hauek hartzen dira kontuan: Eraikinaren portaera eredu: datu historikoetatik abiatuz landua; Meteorologia iragarpena; Instalazioarentzat aurreikusitako erabilera.

25 Smart hirien gorabeheren kudeatzailea

Hiriaren kudeaketa integratuko sistema; nahi diren parametro guztiak monitorizatzeko aukera emateaz gain, aukera ematen du gorabehera pertsonalizatuak hautemateko funtzionamendu arauak zehazteko, eta gorabehera horiek erabat kudeatzeko.

05 SmartCool&Heat

Hiri bateko klimatizazioko instalazioen eragimen energetikoa hobetzera xedatutako proba pilotua. Era berean, klimatizazio beharren eta hobekuntza ekintzen ondoriozko CO₂ isurketak murriztea ere aurreikusiko du sistemak.

21 SHOWAY APP

Mugikorren erabiltzaileei marketin kanpainak helaraztea ahalbidetzen duen aplikazioa garatzea, hainbat testuinguru parametro oinarritzat hartuta, esate baterako, lokalizazioa, data eta ordua. Aplikazioa hiri eta herrietako denda txikiek, tabernek eta jatetxeek osatzen duten sektorean jarri nahi da abian.

34 #Partaidetza on: sarea gobernu onaren zerbitzura

Proiektu honekin partaidetza presentzialaren osagarri izango den sarerako tresna bat garatu nahi dugu politika publikoen eremuan garatzen diren partaidetzako prozesuetarako oro har, eta zehazki, partaidetzako aurrekontuetarako. Ez dago prozesu paralelo gisa planteatua, elkar elikatzen duten prozesu gisa baizik eta beraz, ez du presentziala baztertzen.

29 ZENLUM: Industriako argiterian energia aurrezteko sistema haririk gabeko teknologiaren bidez

LED argi sistemak erabiliz eta luminaria bakoitza kontrolatuz modu adimentsuan banatutako haririk gabeko kontrol sare bati esker, sistema gai da doitzeko luminaria bakoitzaren argi intentsitatea, inguruko argiaren arabera, eta beti argitasun maila berari eutsita. Argia modu erabat adimentsuan doitzen da, automatikoki.

31 HelpMe!

El proyecto HelpMe! es la combinación de tecnologías móviles actuales con geoposicionamiento y los sistemas de alarmas y emergencias tradicionales para dotar al ciudadano de una herramienta de ayuda inmediata en caso de emergencia o situación de peligro. El App funciona tanto como un botón del pánico como una alarma retardada.

06 EMS Insight: Energi-eraginkortasuna eraikinetan, klimatizazio-sistemen abio/geldialdi kontsignen optimizazio bitartean eta funtzionamendu txarren identifikazioa

Teknologia honen helburu nagusia zera da: konfort baldintzak bermatuz, klimatizazio sistemen lana optimizatzea. Horretarako, honako hauek hartzen dira kontuan: Eraikinaren portaera eredu: datu historikoetatik abiatuz landua; Meteorologia iragarpena; Instalazioarentzat aurreikusitako erabilera.

25 Gestor de incidencias para la Smart Town

Un sistema de gestión integrado de la ciudad, que además de monitorizar todos los parámetros que se deseen, permite definir reglas de función ambiente para detección de incidencias personalizadas y a medida, y la gestión total de dichas incidencias.

05 SmartCool&Heat

Realización de un piloto orientado a la mejora de la eficiencia energética en las instalaciones de climatización de una ciudad. Igualmente el sistema contemplará el ahorro en las emisiones de CO₂ derivadas de las necesidades de climatización y acciones de mejora.

21 SHOWAY APP

Desarrollo de una solución que permita el despliegue de campañas de marketing a usuarios móviles basándose en diferentes parámetros de contexto como la localización, la fecha y hora del día. El escenario sobre el que se plantea la solución es el sector comprendido por los pequeños comercios, bares y restaurantes de las ciudades y pueblos.

34 #Partaidetza on: sarea gobernu onaren zerbitzura

Proiektu honekin partaidetza presentzialaren osagarri izango den sarerako tresna bat garatu nahi dugu politika publikoen eremuan garatzen diren partaidetzako prozesuetarako oro har, eta zehazki, partaidetzako aurrekontuetarako. Ez dago prozesu paralelo gisa planteatua, elkar elikatzen duten prozesu gisa baizik eta beraz, ez du presentziala baztertzen.

29 ZENLUM: Sistema de ahorro de energía en iluminación industrial mediante tecnología inalámbrica

Mediante el uso de iluminación LED y el control unitario de cada luminaria gracias a una red de control inalámbrica distribuida inteligente, el sistema regula la intensidad lumínica de cada luminaria en base a la luz ambiental, manteniendo siempre el mismo nivel de luminosidad. Esta regulación se realiza de forma totalmente automática.



12 Hornidura sareetan ur ihesak hautemateko, kokatzeko eta ihesaren tamaina zehazteko sistema aditua

Sistema honen teknologiak hiru alderdi hartzen ditu; alde batetik, ihesak ia denbora errealean detektatzen ditu; bestetik, ihesaren tamaina zehatz antzemateko gai da; eta gainera, esparru oso mugatu batean eta sarearen nodo batean kokatzen du (gaur egun erabiltzen diren aplikazioek sektore batean kokatzen dute, hiri bateko auzo baten tamaina izan dezakeena).

14 SMARTMUGI

Hainbat iturritatik lortutako datuak urtero finkatu behar dira. Eskura dagoen informazioari esker txosten bat egin daiteke hirian mugikortasunaren egoera aztertzeko. Gainera, mugikortasun departamentuari hileroko finkatutako datuak eman dakizkioke, neurri zehatzen inpaktua neurtzeko, eta gorabehera arrazoizko epe batean erantzuteko.

16 EKSA: Kudeaketa Sistema Adimenduaren prototipo garapena eraikuntzen sistema energetikoen diagnostiko eta kontrol efizienterako

Eraikinen energia sistemak era zentralizatuan eta urrunetik ikuskatu eta kudeatzeko funtzionaltasun aurreratuak dituen plataforma da. Bi atal ditu:
Plataforma energia efizientzia munduan trebaturiko AIGUASOL COOP. enpresarekin elkarlanean garatuko da, punta-puntako ezagutza eta prozesuak bermatzeko.

12 Sistema experto de detección, dimensionamiento y ubicación precisa de fugas de agua en redes de abastecimiento

Este sistema tiene una triple componente tecnológica ya que no sólo pretende detectar las fugas en tiempo cuasi-real, sino que también debe ser capaz de dimensionar de forma precisa el tamaño de la fuga y además ubicarla dentro en un área muy acotada y centrada en un nodo de la red (frente a las soluciones actuales que la ubican en un sector, que tiene un tamaño de un barrio entero de una ciudad).

14 SMARTMUGI

Hay que realizar una consolidación anual de los datos obtenidos por las diferentes fuentes de datos. Gracias a la información disponible se puede crear un informe que permita realizar un análisis del estado de movilidad en la ciudad. Además, se puede dotar al departamento de movilidad con los datos consolidados mensualmente para poder medir el impacto de medidas concretas y también para responder en un tiempo razonable a las incidencias.

16 EKSA: Kudeaketa Sistema Adimenduaren prototipo garapena eraikuntzen sistema energetikoen diagnostiko eta kontrol efizienterako

Eraikinen energia sistemak era zentralizatuan eta urrunetik ikuskatu eta kudeatzeko funtzionaltasun aurreratuak dituen plataforma da. Bi atal ditu:
Plataforma energia efizientzia munduan trebaturiko AIGUASOL COOP. enpresarekin elkarlanean garatuko da, punta-puntako ezagutza eta prozesuak bermatzeko.



5.- PROPOSAMENA ETA EBAZPENA

Azaldutako lan metodologia aplikatuz lortutako emaitzen arabera, txosten hau sinatzen dutenek honako proposamen hau aurkezten diote Ebaluazio Batzordeari programako 9.2 oinarrian xedatutakoari jarraituz:

Onartzea eta ematea ondorengo dirulaguntzak Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko ondorengo kontusailen kargura, honako proiektu hauengatik:

5.- PROPUESTA Y RESOLUCIÓN

De conformidad con los resultados obtenidos en la aplicación de la metodología de trabajo explicada, los que suscriben el presente informe, presentan a la consideración de la Comisión Evaluadora prevista en la Base 9ª.2 del programa la siguiente propuesta:

Aprobar y Conceder las siguientes subvenciones, con cargo a las siguientes partidas del presupuesto del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo, por los siguientes proyectos:

Partida: 1 0620.200.770.00.01 2015

Espediente Kodea Código Expediente	(IFZ/IFK) (NIF/CIF)	Erakunde eskatzailea Entidad solicitante	INBERTSIOA INVERSIÓN	LAGUNTZA SUBVENCIÓN
2015-PCR3-000004-01	B38472197	EUROHELP CONSULTING SL	141.807,95 €	40.000,00 €
2015-PCR3-000005-01	B20480059	IGARLE SL	96.987,56 €	33.945,65 €
2015-PCR3-000012-01	B20707139	BUNT PLANET SL	149.871,17 €	40.000,00 €
2015-PCR3-000020-01	B75116541	TUMAKER SL	103.737,00 €	36.307,95 €
2015-PCR3-000021-01	B20686747	DINYCON SISTEMAS SL	93.297,15 €	32.654,00 €
2015-PCR3-000025-01	B20636502	HISPAVISTA SL	201.782,00 €	40.000,00 €
2015-PCR3-000027-01	A20796041	SUMINISTROS ELÉCTRICOS GABYL GIPUZKOA SA	98.577,21 €	34.502,02 €
2015-PCR3-000028-01	B20963302	IAMETZA INTERAKTIBOA SL	62.023,73 €	21.708,31 €
2015-PCR3-000029-01	B20980918	EKILOR ENERGIAS RENOVABLES SL	174.195,95 €	40.000,00 €
2015-PCR3-000031-01	B75058503	ENIGMEDIA SL	70.038,06 €	24.513,32 €
2015-PCR3-000032-01	A20038915	IBERMATICA SA	105.077,16 €	36.777,01 €
2015-PCR3-000034-01	B20775581	ELHUYAR ZUBIZE SL	82.920,28 €	29.022,10 €
Guztira/ Totales.....			1.380.315,22 €	409.430,36 €

Partida: 1 0620.200.781.00.02 2015

Espediente Kodea Código Expediente	(IFZ/IFK) (NIF/CIF)	Erakunde eskatzailea Entidad solicitante	INBERTSIOA INVERSIÓN	LAGUNTZA SUBVENCIÓN
2015-PCR3-000006-01	G20545729	FUNDACION TEKNIKER	90.003,02 €	31.501,06 €
2015-PCR3-000014-01	G75051912	FUNDACIÓN VICOMTECH	105.302,05 €	36.855,72 €
2015-PCR3-000016-01	F75076331	TALAIOS AHALDUNTZEAN OINARRITUTAKO SAREAK	73.328,68 €	22.212,86 €
Guztira/ Totales.....			238.633,75 €	90.569,64 €

GUZTIZKO OROKORRA TOTAL GENERAL.....	1.648.948,97 €	500.000,00 €
---	-----------------------	---------------------



Ezetztea Honako proiektuak, ondoren azaltzen diren arrazoiengatik:

Desestimar los siguientes proyectos, en razón de las causas que se exponen:

Ezetzeko arrazoa: Programa Erakunde honek ez ditu betetzen erakunde onuraduna izateko bete behar diren baldintzak. Ez du kreditatu ezen gutxienez baduela jarduera ekonomikoko zentro bat Gipuzkoan (<i>GAO 41zenbakia, 2015eko martxoaren 3a, 2.2 oinarria</i>).		Razón de denegación: La entidad solicitante no cumple con los requisitos necesarios para ser beneficiaria. No acredita la existencia de al menos un centro de actividad económica en Gipuzkoa (<i>BOG nº 41, 3 de marzo de 2015, base 2.2</i>).
Espediente Kodea Código Expediente	(IFZ/IFK) (NIF/CIF)	Erakunde eskatzailea Entidad solicitante
2015-PCR3-000003-01	F20983821	REALIZE S. COOP.

Ezetzeko arrazoa: Enpresa eskatzaileak proiektu bat baino gehiago aurkeztu du, beraz lehenik aurkeztutakoa bakarrik hartuko da kontuan. (<i>GAO 41zenbakia, 2015eko martxoaren 3a, 4.1. oinarria</i>).		Razón de denegación: La entidad solicitante presenta más de un proyecto, de manera que se considera la presentada en primer lugar (<i>BOG nº 41, 3 de marzo de 2015, base 4.1</i>).
Espediente Kodea Código Expediente	(IFZ/IFK) (NIF/CIF)	Erakunde eskatzailea Entidad solicitante
2015-PCR3-000009-01	B20783015	ZITU INFORMATIKA SL
2015-PCR3-000010-01	B20783015	ZITU INFORMATIKA SL

Ezetzeko arrazoa: Programa honen aurrekontua agortu da puntu gehiago lortu duten beste proiektu batzuekin.		Razón de denegación: El presupuesto del programa se ha agotado con otros proyectos que han obtenido mayor puntuación.
Espediente Kodea Código Expediente	(IFZ/IFK) (NIF/CIF)	Erakunde eskatzailea Entidad solicitante
2015-PCR3-000001-01	F20905063	ISEA S COOP
2015-PCR3-000002-01	B75001750	MUGIKORTASUN KUDEAKETA ZERBITZUAK SL
2015-PCR3-000007-01	G20079695	CENTRO DE ESTUDIOS E INVESTIGACIONES TECNICAS
2015-PCR3-000008-01	B20783015	ZITU INFORMATIKA SL
2015-PCR3-000011-01	G20527511	ASOC COMERCIO HOST Y SERVICIOS IRUN
2015-PCR3-000013-01	F20045241	MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA S.COOP.
2015-PCR3-000015-01	F75034942	EKITERMIK S.COOP.P
2015-PCR3-000017-01	B75077255	NATURVEGAN ECOLOGICO SL
2015-PCR3-000018-01	F20079828	IKERLAN S.COOP.
2015-PCR3-000019-01	B75018960	PROTIKER SL
2015-PCR3-000022-01	B20701553	INDABA CONSULTORES
2015-PCR3-000023-01	F20369153	LKS, S.COOP.
2015-PCR3-000024-01	B20588976	DONOSTIALDEA SOCIEDAD DE SERVICIOS SL
2015-PCR3-000026-01	B20631198	COMUNICACIÓN INTERACTIVA ADIMEDIA SL
2015-PCR3-000030-01	G75061051	BASERRITIK.COM BASERRITARREN ELKARTEA, E.Z.
2015-PCR3-000033-01	B75091892	ENERGY REVIVAL SL



Laburpena

Guztira 34 proiektu aurkeztu dira "SMART Gipuzkoa: Lurralde Adimentsua" programaren 2015ko deialdira. Hona hemen aurkeztutako proposamenaren datuak laburbildurik (argibide gehiago eranskin estatistikoan):

Resumen

En total fueron 34 los proyectos presentados a la Convocatoria 2015 del programa «SMART Gipuzkoa: Lurralde Adimentsua», los datos resumidos de la propuesta presentada son los siguientes (más información en el anexo estadístico):

PROPOSAMENA PROPUESTA	Kopurua Nº	Inbertsioa Inversión	Diru laguntza Subvención
DIRUZ LAGUNDU/ APOYAR	15	1.648.949 €	500.000 €
EZEZTATU/ DESESTIMAR	19	2.662.390 €	533.037 €
Guztira/ Total	34	4.311.339 €	1.033.037 €